

2016 / 2017 ikasturtea

**HAUR TRANSEXUALEI BURUZKO EZAGUTZA ZABALTZEKO ETA
ONARPENA SUSTATZEKO OSASUN-HEZIKETA PROIEKTU BATEN
GARAPENA**

Egilea: Leire Altube Urkia

Zuzendaria: Joseba Xabier Huitzi Egilegor

LABURPENA

Sarrera: Haur transexualak gizartean integratzeko zailtasunekin topatu izan dira, besteak beste, horren inguruan dagoen informazio gabezia dela eta. Ondorioz, onarpen eza, sentimendu ez atseginak eta bazterketak eman izan dira. Erizainen lanen artean hezitzaile funtzioa aipatu behar da. Eginkizun horri jarraiki, haur horien integrazioa eta ezagutza zabaltzeko osasun-heziketa proiektu bat proposatzen da.

Helburua: Haur transexualei buruzko ezagutza ulertzeko eta beraien onarpena sustatzeko, eskola bateko zazpi-zortzi urteko haurrentzat, baliagarria izan daitekeen osasun-heziketa proiektu baten proposamena egitea.

Metodologia: Alde batetik, osasun-heziketa proiektua aurrera eramateko, datu-baseak erabiliz bilaketa bibliografikoa burutu da. Bestalde, osasun-heziketa proiektua garatzeko ipuin bat sortu da.

Garapena: Osasun-heziketa proiektua haurrek transexualitatea zer den ulertzeko eta horien onarpena sustatzeko sortu da. Proiektua zazpi-zortzi urte bitarteko haurrei zuzendua dago; hala ere, gurasoak, hezitzaile nagusiak izanik, heziketara eta horren parte izatera gonbidatuak daude. Bost gai lantzeko, bost aste erabiliko dira eta horretarako, hainbat jarduera antolatu dira.

Jarraipena eta ebaluazioa: Proiektuaren ebaluazioa egiteko, bereganatutako kontzeptuen informazioa biltzen da. Ondoren, informazio horren bitartez, proiektuari hobekuntzak egiten zaizkio. Horretarako, hainbat esparru kontuan hartu behar dira.

Ekarpen pertsonala: Sortu den proiektua martxan jarri ez bada ere, haur transexualen onarpena sustatzeko baliagarria izan daiteke. Horretarako, diziplina anitzeko taldearen garrantzia azpimarratu behar da.

Hitz gakoak: *Haur transexuala, osasun-heziketa, erizaintza, ipuina.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. HELBURUA	5
3. METODOLOGIA	5
4. BILAKETAREN EMAITZAK	7
5. OSASUN-HEZIKETA PROIEKTUAREN GARAPENA.....	8
5.1. PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA.....	8
5.1.1. AZTERKETA GARAIA	9
5.1.1.1. Talde diana	9
5.1.1.2. Jarrerak eta faktoreak.....	9
5.1.1.3. Kontzeptu-mapa	11
5.1.2. OSASUN-HEZIKETAREN HELBURUAK.....	12
5.1.3. DISEINU-FASEA	12
5.1.3.1. Gaitegia.....	12
5.1.3.2. Osasun-heziketa programaren kronograma.....	14
5.1.3.3. Saioak eta jarduerak.....	15
5.1.4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	25
5.2. MATERIAL DIDAKTIKOA	26
6. EKARPEN PERTSONALA.....	27
7. BIBLIOGRAFIA.....	29
8. ERANSKINAK.....	35
8.1. Eranskina: “Haur transexualen inguruko onarpena sustatzen duten osasun- hezkuntza programak” bilaketaren datu esanguratsuenak	35
8.2. Eranskina: “Haur transexualen ezagutza eta onarpena bultzatzen dituzten erizaintzazko artikuluak” bilaketaren datu esanguratsuenak	37
8.3. Eranskina: “Genero disforiaren ezagutza eta egunerokotasuna” bilaketaren datu esanguratsuenak.....	39
8.4. Eranskina: “Ipuinen garrantzia osasun-heziketan” bilaketaren datu esanguratsuenak	41

8.5. Eranskina: Datu-baseetan aurkitutako testuen izenburuak.....	43
8.6. Eranskina: Web-orrialdeetatik hartutako dokumentuak.....	45
8.7. Eranskina: “Mikel-en istorioa”	46
8.8. Eranskina: Antzerkirako egoerak.....	52
8.9. Eranskina: Haurrentzako ebaluazio orria.....	53
8.10. Eranskina: Hezitzaileentzako behaketa gidioa	54
8.11. Eranskina: Gurasoentzako ebaluazio galdetegia	55

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: PIO egitura, DeCS, MeSH eta hitz gakoak	6
2. Taula: Kronograma	14

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Proiektuarekin lotu nahi den helburua ulertzeko eskema	11
---	----

1. SARRERA

Transexualismoari buruzko lehenengo erreferentzia 1930. urtean Friedrich-ek egin bazuen ere, Harry Benjamin alemaniar medikua izan zen, *The Transsexual Phenomenon*, liburuari esker, terminologia ospetsu egin zuen pertsona (1-3).

Real Academia Española-ren (RAE) arabera, sexua animalien nahiz landareen egoera organikoa da, pertsonen kasuan, emakumezko ala gizonezko izatea hain zuzen ere (4). Egungo gizartean, sexuaren bereizketa organo-sexualen arabera egiten da, hau da, aluarekin jaiotzen den edonor neskatzat hartzen da, aldiz, zakilarekin jaiotzen direnak mutiltzat (5). Baina badira beste sailkapenak, adibidez, biologiaren ikuspegitik, Anne Faustoren arabera bost sexu ezberdinu daitezke, Siberiako *Chukis* herrialdeak sei sexu ezberdintzen ditu eta Thaiandiako budistek lau edo sei (6).

Generoa, aldiz, gizarteko ezaugarri psikologiko, sozial, eta kulturelek osaturiko pertsonak sailkatzeko era da (7). Gizartearen arabera, generoa pertsonaren sexua adierazteko modua dela esan daiteke, eta, beraz, generoa eta sexua bananduta ezarri beharrean batera ezartzen dira; emakumezkoen ezaugarri batzuk eta gizonezkoen beste batzuk ezarriz (janzkera, jarrerak...) (6,7).

Definizioekin jarraituz, genero identitatea emakume edo gizon sentitzea, biak batera sentitzea edo horietako bat berarekin ere ez identifikatzea izango litzateke. Gainera, genero identitatea norberaren erabakia denez, jaiotzean ezarritako sexuarekin bat ez etortzea gerta daiteke (8).

Transexualitatea, beste pertsona batzuek hurrari jaiotzean ezarritako sexuaren eta norberak sentitu eta adierazten duen genero identitatearen artean ematen den desberdintasun egoera da (5,8,9,10-13). Esaterako, mutil transexualen jarrerak aztertuz gero, pertsona horiek, mutil bezala tratatzea eskatzen dute eta gizonezkoen rola hartzen dituzte, horiek imitatuz. Gainera, mutil bezala janzten dira, pixa zutik egiten saiatzen dira eta gehienek, egunen batean zakila haziko zaiela esaten dute. Neska transexualen jarrerak ikusiz gero, neska bezala tratatzea eskatzen dute eta emakumezkoen rola hartzeko joerak izaten dituzte. Horrez gain, askok, ile luzea edukitzearen plantak egiten dituzte toailak edo kamisetak erabiliz. Aipatutakoaz gain, gehienek, zakila soberan dutela azaltzen dute, hori egunen batean erori egingo zaiela esanez edota kentzen saiatuz (14).

Transexualek kontrako sexuaren modukoak izan nahi dutela esaten bada ere, kontuan hartu behar da, definitzerako garaian, egokiena, pertsona transexualak beraien benetako sexu eta generoarekiko adostuta bizi nahi dutela esatea izango litzatekela (15). Orientazio sexualari dagokionez, transexualitatea ez doa homosexualitateari lotua, izan ere, egindako ikerketen arabera % 90ak orientazio heterosexuala dutela adierazten da (3). Transexualitatearen prebalentzia zehaztea zaila baldin bada ere, Chrysallis elkartearen arabera, 1.000 pertsonatik 1 transexuala dela estimatzen da (14).

Batzuetan, transexualitate hitzaren ordean, transgenero edo *trans* terminologia azaltzen da. Termino hori orokorra da, hau da, norbere genero identitatea eta adierazpena (janzkera, jarrerak...) jaiotzean ezarritako sexuarekiko ezberdinak diren pertsona guztiak barne hartzen dituen terminoa da. Beraz, pertsona transexualak barne hartzeaz gain, beste genero adierazpen batzuk ere terminologia horretan sartuko lirateke, esaterako, intersexualak (7,8).

Ebidentziaren arabera, genero identitatea bizitzako lehen etapan garatzen da eta gutxi gorabehera sei-zazpi urterekin ezartzen dela kontsideratzen da. Horrek ez du esan nahi ordea, beti horrela izan behar duenik, identitatea bizitza osoan zehar osatzen joaten baita (16).

Aintzinean, psikiatriaren arlotik transexualitatea buruko gaixotasun bezala ikusi izan da, *genero identitatearen nahasmendua* diagnostikoaren barnean sartzen zelarik. Ondorioz, sendatzeari jartzen zitzaion arreta, pertsonari bere sentimenduak eta pertzepzioak gaizki zeudela ulertzen saiatuz, baina teknika horren porrota nabaria izan zen (3,12,17,18).

Hipotesi baten arabera, jaiotzean ezarritako sexuarekin ez identifikatzearen gakoa enbrioaren nahiz umekiaren garapen etapa goiztiarrean dagoela estimatzen da. Zientzialarien ustetan, sexu-gonaden esleipena eta burmuineko sexuaren izendapena denbora tarte desberdinetan egitearen ondorioa izango litzateke. Hori dela eta, sexu kromosomikoaren arabera sexu-organoak garatuko dira, baina horiek ez dira burmuinarekin bat etorriko (10,11).

2010ean *American Psychiatric Association-k* (APA) idatzitako *The Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*, liburuan genero identitatearen nahasmenaren terminologiatik genero disforiaren terminora pasa zen. Nahiz eta patologiatzat ez hartzeko ahalegin bat izan, azkenengo bertsio horrek genero disforiaren diagnostikoa buruko-nahasmen bezala adierazten jarraitzen du (3,9,12,17,18). Izan ere, genero

disforia, jaiotzean beste batzuek ezarritako sexuaren inguruan etengabeko ondoez eta sentimendu bizi bezala definitzen baita. Hori, beste sexuaren gorputza edukitzeko desirarekin adierazten da eta gainontzeko pertsonak kontrako sexuarekiko gisatzat onartzea eskatzen du. Beraz, elkarte askok patologia hori kentzea eskatzen dute (5).

Legedian barneratuz, Genero Identitateari buruzko martxoaren 15eko 3/2007 Legeak, jaiotzean ezarritako sexua nahiz izena norberak sentitutakoarengatik aldatzea baimentzen du (1). 2011ko irailaren 28an, Europako Parlamentuak, burukonahasmenduaren eta portaeraren sailkapeneko nazioarteko gaixotasunen hamaikagarren bertsioan, genero disforia nahasmen ez patologikotzat hartuko dela erabaki zuen (17,19).

Bazterketa kasuetan barneratuz, sexu orientazioagatik edo genero identitateagatik jasandako *bullying* edo eskola jazarpena ez da hurrek egiten duten traukilkeria bat gehiago. Jazarpenak, hezkuntza-sisteman nahiz horietatik at, hurrek jasaten dituzten eraso fisiko, bazterketa eta zapalketari erreferentzia egiten dio (15).

Europar Batasuneko Beharrezko Eskubide Agentziak eginiko galdetegi baten arabera, galdetegiko transexualen % 62ak jazarpena, % 54ak bazterketa eta % 8ak eraso fisiko edo sexuala jasan dutela adierazi zen (19). Askoren esanetan sentimendu ohikoena beldurra da, hau da, ingurukoek norbere sentimenduen aurrean izango duten erantzunarekiko beldur dira. Mundu seguru batean aurkitzen ez direnez, batzuek, beraien sentimenduak gordetzen dituzte, bazterketak, gorrotoak, irainak, mespretxuak... ekiditeko asmoz (20). Guzti horregatik, aipatzekoa da, familiaren presentziak, laguntzak eta onarpenak horrelako egoeraren aurrean duen eragin positiboa (21).

Datuekin aurrera jarraituz, estimatzen da transexualen % 8ak bere buruaz beste egiten duela, % 6ak depresioa sufritzen duela eta soilik % 20a dela gizartean integratua sentitzen dena (8).

Arartekoak eginiko ikerketa baten arabera, gizartean transexualitatearen inguruko informazio gabezia dago, besteak beste, ikerketan % 6.1ak transexual hitza ez zuela ulertzen adierazi zuen. Ikerketan, eskoletan jarrera homofoboak aurkezten diren ehuneko altu bat dagoela adierazteaz gain, ikasleen esanetan, lesbiana, gay, bisexual edo transexual sentitzen den pertsona batentzat eskola ez dela toki segurua adierazi zen (22).

1978ko Espainiako Konstituzioko 14. artikulua arabera, berariaz debekatzen da jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edonolako baldintza edo egoera pertsonal edo sozialenganako diskriminazioa (1). Barreak, txutxu-mutxuak, margotze homofobo nahiz transfobikoak... begien aurrean gertatzen dira. Eraso, zapalketa eta bazterketa bati buruz hitz egitean, eskolaturiko populazioaren parte handi nahiz txiki bati eragiten dion arazo bati buruz hitz egiten da. Lehenik, babestu beharreko biktima zein den jakin behar da, izan ere, biktima horrek ez du seinalatua izan nahi (15,22).

Haurtzaroan edo nerabezaroan, eskolara joatea, pertsona transexual gehienentzat isilpeko sufrimendua izan da. Bakartasuneko uneak bizi izan dituzten bizitzakoaldi bat hain zuzen ere, ahozko eraso eta, askotan, eraso fisikoen biktima izan diren aldia. Pertsona horien haurtzaroan eta nerabezaroan, kasu gehienetan, bakardadea, barnerakoitasuna eta nolabaiteko gizarte isolamendua izan ohi dira nagusi. Batzuetan, helduaroan ere, hala jarraitzen dutela adierazten dute. Zailtasun guzti horiek, pertsonaren prestakuntza prozesuan ondorioak izaten dituzte, batzuetan, muturreko alderdiak erdiesten direlarik, esaterako, pertsonak ikastetxea utzi behar izatea. Ondorio ohikoenetako bat, adin gehiago duten pertsonen artean behintzat, eskola uztea izan da, horrela, lortutako hezkuntza maila txikiagoa izan delarik (23).

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) haurrei adin txikietatik osasun-heziketa ematearen beharra azpimarratzen du. Horri jarraiki, espaziorik aiposena eskolak direla adierazten du. Izan ere, pertsona oro, adin batetik aurrera derrigorrez igaroko den lekua da, eta, beraz, gizarteari informazioa erraz bideratzeko toki aproposa bihurtzen da. Horrela, hurrek hezkuntza barneratzeaz gain, ikasitako jokabideak beraien egunerokotasunean aplikatuko dituzte (24).

Erizainen lanean murgilduz, zainketa eta asistentzia hoberenak eman ahal izateko, horiek gizarteko beharretara egokitu behar dira. Aipatu beharra dago, Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualei (LGBT) lagundu ahal izateko, zainketen sisteman aldaketak egitea komenigarria izango litzatekela, esate baterako, gizarteko gainontzekoei informazio egokia transmitituz (7). Beraz, pertsona horiei kalitatezko arreta eskaini ahal izateko diziplina anitzeko taldeen beharra azpimarratu behar da. Horrela, hainbat profesionalen laguntzaz, pertsona horiei behar duten arreta integrala eskainiko zaie (13).

Osasun-hezkuntzako profesionalengan, pertsona transexualei emandako arreta, gutxi garatutako arloa izan da (9). Ikerketetan, argi ikusi da, gai horien inguruan heziketa emateko beharra dagoela, ezjakintasunak asmakizunetara eramaten duelako. Beraz, gizarteari informazioa transmititzeko eta haur transexualen nahiz horien gurasoen bitzita errazteko eta laguntzeko, transexualen inguruko osasun-heziketa programak bultzatu behar dira (20, 25). Heziketaren baitan, LGBT komunitateari sarrera bat egin behar zaio, bertan, terminologia nahiz kontzeptuen esanahiak azalduz. Horrela, gerora, besteak beste, sexu orientazioa eta genero identitatea desberdintzeko asmoz (25).

MOEk osasun-heziketa emateko, taldeko metodo parte-hartzaileak, lan esperimentalak eta jolasak gomendatzen ditu. Horrez gain, ipuinak heziketa emateko metodologia ona direla aipatu behar da, horiek asmaketaren eraginez, irudimena bultzatzeaz gain, era erraz batean, haurra ezagutzara eta interesera erakartzen dutelako (24).

2. HELBURUA

Helburu orokorra: Haur transexualei buruzko ezagutza ulertzeko eta beraien onarpena sustatzeko, eskola bateko zazpi-zortzi urteko haurrentzat, baliagarria izan daitekeen osasun-heziketa proiektu baten proposamena egitea.

3. METODOLOGIA

Osasun-heziketa baten egitura egoki finkatu ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiko katalogotik ondorengo txostena aukeratu da:

Pérez MJ, Echauri M, Ancizu E, Chocarro J. Manual de educación para la salud. [Interneteko monografia]. Navarra: Instituto de Salud Pública del Gobierno de Navarra; 2006 [atzitze data: 2016/01/19]. Eskuragarri: <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/049B3858-F993-4B2F-9E33-2002E652EBA2/194026/MANUALdeeducacionparalasalud.pdf>

Gero, kontzeptuak argitzeko, erizainek publikatu dutena eta gaiari buruzko osasun-heziketa proiektuak lortzeko, bilaketa bibliografikoa egin da. Bilaketa bibliografikoa egiterako garaian, PIO egitura erabili da, horrela planteatu delarik:

- P (*Population*): Haur transexualak.
- I (*Intervention*): Erizaintza eta osasun-heziketa.
- O (*Outcome*): Onarpena eta ezagutza.

Alde batetik, PIO egituran oinarrituz atal bakoitzari dagozkion “*Descriptores en Ciencias de la Salud*” (DeCS) eta “*Medical Subject Headings*” (MeSH) deskriptoreak aukeratu dira artikuluen bilaketa zehazteko asmoz. Bestalde, aipatu behar da, bilaketak egiterako orduan, gaiarekin lotura zuzena duten hitz gakoak ere erabili direla. 1. Taulan ikus daitezke erabilitako DeCS eta MeSH deskriptoreak eta hitz gakoak.

1. Taula: PIO egitura, DeCS, MeSH eta hitz gakoak. Iturria: Propioa.

PIO egitura	DeCS	MeSH	HITZ GAKOAK	
P: POPULATION	Niño	Child	Niños transexuales/ Transsexual children	
	Personas transgénero	Transgender persons		
	Disforia de género	Gender dysphoria		
I: INTERVENTION	Enfermería	Nursing care	Educación para la salud/ Health education	Cuentos/ Stories
	Sistemas de salud	Health systems		
	Servicios de Salud	Health Services		
	Biblioterapia	Bibliotherapy		
O: OUTCOME	Conocimiento	Knowledge	Aceptación/ Acceptance	

Jarraian, jada deskriptore eta hitz gakoak jakinda, lanerako beharrezkoa izan den informazioa bilatu ahal izateko, 7 datu-base erabili dira: *Trip Database*, *MEDES*, *Cochrane Plus*, *PubMed*, *Dialnet*, *Science Direct* eta *Cuiden*. *Biblioteca Virtual de la Salud (BVS)* deritzon metabilatzailea ere erabili da.

Datu-baseetako bilaketa aurrera eraman ahal izateko erabili diren operadore boolearrak “*AND*” eta “*OR*” izan dira, horrela bilaketa zehaztea lortu delarik. Horri jarraiki, artikulua aukeratzeko orduan barne-irizpide batzuk ezarri dira:

- Urte-maila irizpidea: Aurkitutako informazioaren urte tarte 2007-2017 izango da.

- Hizkuntza irizpidea: Aurkitutako dokumentuen hizkuntza euskara, gaztelania edo ingelesa izan behar da.
- Testu osoaren irizpidea: Testu osoa eskuragarri egon behar da.

Behin barne-irizpideak aplikatuta, testuen aukeraketa egin da. Horretarako, lehendabizi, datu-baseetan aurkitutako testuen izenburuak eta laburpenak irakurri dira, ondoren, lanaren egiturarekin bat etorri direnak aukeratu direlarik.

Lanerako hainbat web-orrialde ere ikusi dira, hala nola, Daniella Fundazioa, Chrysallis (Asociación de familias de menores transexuales) erakundea, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saileko webgunea, Euskal Gubernutik sorturiko Berdinu erakundea, RAE hiztegia, *American Psychological Association* elkarteak, Basta de bullying webgunea, Eusko Jaurlaritzako Arartekoren web orrialdea eta *North American Nursing Diagnosis Association*-ren (NANDA) webgunea hain zuzen ere.

Azkenik, irakurritako dokumentuetan haurren ikasketa prozesuan ipuinen garrantzia aipatu izan da. Horregatik, osasun-heziketa ematen laguntzeko eskuz eginiko ipuin bat sortu da. Ipuina lanean txertatu ahal izateko aparailu elektronikoaren laguntza erabili da, hala nola, argazki kamera eta ordenagailua hain zuzen ere. Horrez gain, haurrentzako sortu den ebaluazio orriko irudiak egiteko *Paint* programa erabili da.

4. BILAKETAREN EMAITZAK

Guztira lau bilaketa bibliografiko egin dira. Datu-baseetan egindako bilaketen emaitzak 8.1., 8.2., 8.3. eta 8.4. Eranskinetan ikus daitezke. Horrez gain, datu-baseetan aurkitutako dokumentuen izenburuak 8.5. Eranskinean agertzen dira eta web-orrialdeetatik hartutako testuak, berriz, 8.6. Eranskinean islatu dira.

Bilaketa bakoitzean, azaldutako artikuluko kopuruak, barne-irizpideak, erabilitako iragazkiak eta azkenik, datu-base bakoitzetik aukeratutako artikuluko kopurua islatzen da. Azaldu beharra dago, zenbait kasutan, datu-base berdinetan edota desberdinetan bilketak egitean, artikuluko berdinak agertu direla. Beraz, datu-base bakoitzeko aukeratutako emaitzen kopurua ez da bat etorriko erabilitako artikuluko kopuruarekin.

Ezarriritako barne-irizpideez gain, *Trip Database* datu-basean zarata aurkitu denez, bertan ezarriritako iragazkiak erabili dira bilaketa gehiago zehaztu ahal izateko, erabilitako

iragazki horiek *Systematic review* eta *Guideline* izan dira. *Cuiden*, *MEDES* eta *Cochrane Plus* datu-baseetan, aldiz, isiltasuna nabaria izan denez, horietan bilaketa gehiago zabaltzeko asmoz, hitz gakoek konbinaketak gutxitu dira. Horrela, nahiz eta informazio guztiz zehatza ez aurkitu, lanerako baliagarriak izan diren artikulak bilatu dira. Horrez gain, urte-maila irizpidea betetzen ez duten bi testu aurkitu dira, baina lanerako informazio baliagarria dutenez, erabili egin dira.

5. OSASUN-HEZIKETA PROIEKTUAREN GARAPENA

Osasun-heziketa bat aurrez planifikatutako saio multzoz osatuta dago. Horiek paziente talde bati nahiz bakardadean erabiltzaileei zuzenduta joaten dira, arazo jakin bati buruzko gaitasunak hobetzeko asmoz. Osasunaren sustapena, komunitateari informazioa helarazteari dagokio, bertan, toki bereko zerbitzu ezberdinak, esaterako, osasun zentroa eta eskolak, komunitatearen beharrak asetzeko asmoz harremanetan jartzen direlarik (26).

5.1. PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA

Proiektuarekin hasi baino lehen, galdera batzuk erantzunez, proiektuko alorrak zehaztu dira. Horrela, osasun-heziketa bere osotasunean hobeto ulertu ahal izateko.

- **ZER EGIN?** Bergarako San Martin Agirre eskola publikoko zazpi-zortzi urte bitarteko haurtzat, haur transexualen inguruko bost saio landu dira eta heziketa ematen lagunduko duen ipuin bat garatu da.
- **ZERTARAKO?** Haur transexualen onarpena sustatzeko eta horien bazterketa soziala saihesteko.
- **NOREKIN?** Talde diana, ikastetxeko zazpi-zortzi urte bitarteko haurrak izango dira. Gurasoen parte-hartzea ere gomendagarria izango litzateke, izan ere, haurren hezitzaile nagusiak direnez, beraiek ere gai horri buruzko informazioa jasotzea garrantzitsua da.
- **NORK?** Osasun-heziketa lehen arreta mailako pediatriako erizainak eta irakasleak gauzatuko dute. Gainera, transexualen elkarteko pertsona batek nahiz sexologo batek ere heziketaren zati bat burutuko dute.
- **NON?** Bergarako San Martin Agirre eskolako ikasgela batean.
- **NOIZ?** Kronogramaren arabera gauzatuko da.

Proiektua aurrera eramateko, lau fase desberdinu dira: azterketa garaia, osasun-heziketa proiektuaren helburuak, garai metodologikoa edo diseinu-fasea eta ebaluazioa (26).

5.1.1. AZTERKETA GARAIA

Osasun-heziketa ororekin hasi aurretik, egoeraren hasiera ezagutzea beharrezkoa da, horri esker, heziketa jasoko duten pertsonen errealitatea behatzeko eta horien beharretara egokituko diren helburu eta jarduerak proposatu ahal izateko. Bertan, talde diana eta heziketaren beharra azpimarratzen duten faktoreak aztertu dira (26).

5.1.1.1. Talde diana

Genero identitatea bizitzaren lehen urteetan osatzen dela kontsideratzen da, gutxi gorabehera haurrak urtebete eta lau urte dituenean. Baina, identitatea etapa horretan osatzeak ez du esan nahi guztiz definituta gelditzen denik, izan ere, pertsonak bizitzen dituen esperientzia sozialen arabera garatzen joaten da. Adituek, pertsona baten genero identitatea egonkorren dagoen adina sei-zazpi urterekin dela adierazten dute, azken hori hiru osagarriekin batera lotuta joaten delarik: genero etiketa (neska edo mutila izatea), generoaren egonkortasuna (norberari tokatu zaion generoa denborarekin ez dela aldatuko jakitearen sentimendua) eta generoaren oinarria (norberaren sentimenduen funtsa, fisikoa alde batera utzita) (16).

Hori guztia kontuan hartuta, txikitatik eskoletan transexualitatea zer den eta beraien bizipen nahiz egunerokotasunaren inguruan informazioa ematea garrantzitsua izango litzatekela ikusi da. Gainera, ebidentziari jarraiki, genero identitatea egonkorren dagoen garaia sei-zazpi urterekin dela aztertutik, osasun-heziketaren talde diana gutxi gorabehera adin tarte horretako haurrak izatea erabaki da, zazpi-zortzi urteko haurrak hain zuzen ere. Haur horiek, Bergarako San Martin Agirre eskola publikoko haurrak izango dira eta heziketa hobeto barnertatzeko 15 ikasleko taldeetan banatuko dira.

5.1.1.2. Jarrerak eta faktoreak

Osasun-heziketaren helburuak ondo zehaztu ahal izateko, garrantzitsua da, heziketa jasoko duten pertsonen jarrerak zehaztea eta heziketa beharrezkoa egiten duten faktore pertsonal nahiz sozialak adieraztea (26).

- *Inguruneko faktoreak:*

Transexual eta transgeneroei buruz gizartean dagoen informazio falta handia da. Ondorioz, herritarren iritzia kontuan harturik, transexualitateari buruzko ezjakintasun orokorra dago. Ezjakintasun horrek eta komunikabide batzuek ematen dituzten irudi okerrek, pertsona horiei buruzko estereotipoak eta pertzepzio okerrak sortzea eragiten dute. Hala ere, ikusi da, herritarrei informazioa eman ondoren, onarpenerako joera ematen dela. Beraz, alde batetik, gizartean ikaskuntzako prozesu pedagogikoa egin behar da, eta, bestetik, ikasitakoa barneratzeke denbora eman. Izan ere, guzti horrek, kolektibo hori ez baztertzeko neurriak onartzea eta abiaraztea erraztuko luke (23).

Eusko Jaurlaritzako Lehen Hezkuntzako txostenaren arabera, hurrek gaitasun edo kompetentzia batzuk gainditu behar dituzte kurtsoz pasatu ahal izateko. Kompetentzia hitza horrela definitzen da: «Ezagutzen eta trebetasunen multzo bat baino zerbait gehiago da kompetentzia. Eskakizun konplexuei erantzuteko abilezia darabil, eta baliabide psikosozialak hartzen eta baliatzen ditu, trebetasun eta jarrerekin batera, testuinguru jakinetan» (27).

Gaitasun horietako bat bosgarrena hain zuzen ere, kompetentzia sozial eta zibikoa da: «Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz. Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familiar, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan)» (27).

Beraz, guzti hori ikusirik, garrantzitsua izango litzateke hurrei gizartean bizi diren transexualen egoerari buruzko informazio egokia ematea, gaitasun edo kompetentzia hori osotasunean lortzeko.

- *Faktore pertsonal eta sozialak:*

Genero disforia sufritzen duten pertsonak, jaiotzetik beraien sentimendu eta gorputzaren arteko barne gatazka batean bizi dira eta horrek arazo sozial, legal eta pertsonalak eragiten dizkiete. Beraz, beraien bizitzarekiko duten poztasuna eta ongia erasanda egon


daitezke. Transexualek gizarteko gainontzeko pertsonak bezalako arazoak izan ditzakete, baina horri beste batzuk erantsi behar zaizkio, besteak beste, indarkeria (gizarteko gehiengoak bezala ez pentsatzeagatik) nahiz eraso soziala (diskriminazioa, onarpen eza...). Pertsona transexualak arazo eta zailtasun ugariarekin aurkitzen dira hainbat inguruetan, hezkuntzan, familian, lanean, osasun-sisteman... horrek pertsona, zorigaiztokoa izatea edo norbere bizitzarekin kontentagaitz egotea eragiten duelarik. Ikasketa askoren arabera, transexualen poztasunaren bidean lehenengo urratsen faktore garrantzitsuenak, kontzientzia, erantzukizuna eta adina izaten dira. Gerora, beste batzuk indarra hartzen dutelarik, hala nola, bikotekidea izatea, tratamendu hormonalaren fase ezberdinak... (2). Gainera, askotan, etsigarri nahiz antsietate handiko sintomak edo pentsamendu obsesiboak izaten dituzte, horiek beraien eguneroko bizitzan eragiten dutelarik (10).

Horrez gain, gurasoen jarrerek ere zer esan handia izaten dute. Izan ere, guraso batzuk ukapen, errefusate eta axolagabetasun fasetik igarotzen dira. Horregatik, familiei aurre egiteko estrategiak irakastea garrantzitsua da, gerora pertsonak bere sexu-aldaketa prozesua egitean familiaren babes osoa eduki ahal izateko (1).

5.1.1.3. Kontzeptu-mapa

Osasun-heziketa proiektuarekin lortu nahi den helburu nagusia eta ezaugarriak hobeto ulertzeko eskema 1. Irudian ikus daiteke.

1. Irudia: Proiektuarekin lortu nahi den helburua ulertzeko eskema. Iturria: propioa.



5.1.2. OSASUN-HEZIKETAREN HELBURUAK

Helburu orokorra: Zazpi-zortzi urte bitarteko Bergarako San Martin Agirre eskola publikoko haurrek, transexualismoaren inguruko kontzeptuak eta ezagutzak barneratzea.

Edukien multzoa:

- Homosexual eta heterosexual kontzeptuak.
- Genero identitatea.
- Sentimenduak.
- Transexualak ezagutzen.
- Bazterketa eta *bullying*-a

Helburu zehatzak:

1. Homosexualitatea eta heterosexualitatea desberdintzen ikastea.
2. Transexual hitzaren esanahia ulertzea.
3. Haur transexualen egunerokotasuna ulertzea.
4. Gizartearen aurrean, haur transexualek duten egoera biopsikosoziala barneratzea.
5. Haur transexualen sentimendu ohikoenak identifikatzea eta horien aurrean nola lagundu dezaketen jakitea.
6. Eskolako haurrak *Role-playing*-aren bitartez, transexualen egoeran jartzea.
7. Eskola jazarpenaren edo *bullying*-aren inguruko kontzeptuak ulertzea eta barneratzea.
8. Bazterketa sozial nahiz jazarpen kasuetan nola jokatu eta lagundu behar duten jakitea.

5.1.3. DISEINU-FASEA

5.1.3.1. Gaitegia

1. GAIA: Homosexualitatea, heterosexualitatea eta genero identitatea
Lehenengo gaian, sexu orientazioa eta genero identitatea bereiziko dira. Haurren ikasketa mailara egokituz, homosexualitate eta heterosexualitate kontzeptuak azalduko dira, hitz horiek zer esan nahi duten argituz, eta, horrela, txikitatik normaltasun batean ikusiz. Horrela, esaterako, kalean bi emakume musukatzen ikustea edota eskolako umeren batek bi aita edukitzea normaltasun osoan bereganatu dezaten, era askotako familiak daudela ulertzeko asmoz.

2. GAIA: Transexualak ezagutzen

Gure gizarteak anatomiari erreparatuz, bi sexu ezberdintzen dituela esan daiteke, neska eta mutila. Populazioaren artean, pertsona transexualen inguruko ezagutza zabaltzeko asmoz, garrantzitsua da beraien esperientzietatik eta beraz, egunerokotasunetik ikastea (5,6). Beraz, bigarren gaian, transexualitatea azalduko da, horiek izaten dituzten arazo arruntak modu ulergarrian esplikatuz, bizitzako baldintzei aurre egiteko moduak adieraziz eta lagun eta familien onarpena eta jarrera baikorra transmitituz.

3. GAIA: Sentimenduak eta emozioak

Aldaketa orok sentimendu nahiz emozio ezberdinak eragiten dituzte norberaren barnean. Haur transexualen esanetan, garrantzitsua da sentimenduen inguruan hitz egitea, beraien sentipenak gizartean ezagutzeko, onartzeko eta babesteko (20).

Gaiaren alorra haurrek sentimenduak zer diren barneratzea eta transexualek izaten dituzten sentimenduak gainontzeko haurrei plazaratzea izango litzateke, horretarako, transexualen esperientziak kontuan izanik.

4. GAIA: Eskola jazarpena edo *bullying*-a

Transexualen bizi esperientzia traumatikoen artean, marjinazioak, diskriminazioak eta abusuak azaltzen dira. *Bullying*-aren nahiz indarkeriazko jarreraren ondorio larrienetako bat bere buruaz beste egiteko ideia izaten da. Familiek nahiz gizarteko kideek haurrak beraien genero identitatean onartu, maitatu eta errespetatu behar dituzte (20).

Indarkeria transfobikoaren ondorioz, askok isilpean gordetzen dute beraien benetako nortasuna, horregatik, arazoak izan ohi dituzte beraien familiako kideekin, sozializazio orduan eta lan giroan (9).

Laugarren gaian, bazterketa zer den, zein arazo ekartzen duen eta bazterketa jasaten ari den ume bati nola lagundu landuko da.

5. GAIA: Transexualen egoeran jartzen

Transexualek bizi izaten dituzten egoera batzuk neketsuak eta pisutsuak izaten dira. Esaterako, norberak bizi izaten dituen barne gatazkak: *Zer gertatzen zait? Zergatik niri?* Horrez gain, familiako nahiz gertuko pertsonen ematen behar izaten dizkiete, gerora, horien onarpenaren zain itxaron behar dutelarik.

Egoera horien aurrean, jarrera ulergarriak eta onarpenak asko laguntzen dute. Horretarako, garrantzitsua izango da haurrek entzute aktiboa eta empatia lantzea. *Role-playing*-aren bitartez, haurrek trebetasun psikomotorrak, pertsonalak eta sozialak

landuko dituzte. Horri esker, benetako egoerara egokitzeko eta egoeraren arabera, jokabide egokiak aukeratu ahal izateko (26).

5.1.3.2. Osasun-heziketa programaren kronograma

Landuko diren gaiak, egingo diren ekintzak eta datak zehazten dituen kronograma bat sortu da, 2. Taulan ikus daitekeena.

2. Taula: Kronograma. Iturria: Propioa

	1.SAIOA	2.SAIOA	3.SAIOA	4.SAIOA	5. SAIOA
EDUKIAK	1. GAIA: Homosexualitatea, heterosexualitatea eta genero identitatea	2. GAIA: Transexualak ezagutzen	3. GAIA: Sentimenduak eta emozioak	4. GAIA: Eskola jazarpena edo <i>bullying</i> -a	5. GAIA: Transexualen egoeran jartzen
METODOLOGIA	JARDUERAK: 1. Elkar ezagutzen. 2. Homosexual, heterosexual eta transexual.	JARDUERAK: 3. Errepassoa. 4. "Mikel-en istorioa".	JARDUERAK: 5. Sentimenduak ezagutzen.	JARDUERA: 6. Zer da <i>Bullying</i> -a? 7. Antzerkia prestatzen.	JARDUERA: 8. Antzerkiak.
HEZITZAILEAK	Erizaina, irakaslea eta sexologoa.	Erizaina, irakaslea eta transexualen elkarteko kide bat.	Erizaina eta irakaslea.	Erizaina eta irakaslea.	Erizaina eta irakaslea.
DATAK	01/11/2017 Iraupena: Ordubete.	08/11/2017 Iraupena: Ordubete eta bost minutu.	15/11/2017 Iraupena: Ordubete eta bost minutu.	22/11/2017 Iraupena: Ordubete.	29/11/2017 Iraupena: Ordubete.
LEKUA	Eskolako ikasgela.	Eskolako ikasgela.	Eskolako ikasgela.	Eskolako ikasgela.	Eskolako ikasgela.
MATERIALA	Margoak, 15 orri txuri, garun baten marrazkia, bihotz baten marrazkia eta bi kartulina txuri handi.	Hiru kartulina txuri handi, kolore ezberdinetako margoak, arkatzak eta ipuina.	Musika aparailua, hiru kanta, 45 orri txuri eta margoak.	Bi kartulina gorri, bi kartulina hori, bi kartulina berde, 30 orri txuri, arkatzak eta margoak.	Bakoitzak bere antzerkia aurkezteko etxetik ekarri behar duen materiala edo irakasleari lehenago eskatutako materiala.

5.1.3.3. Saioak eta jarduerak

1. SAIOA: Homosexualitatea, heterosexualitatea eta genero identitatea

Saio horretan 1. Gaia landuko da. Hori 1. eta 2. helburu zehatzekin zuzenki lotua dago eta horretarako bi jarduera burutuko dira. Bertan parte hartuko duten pertsonak, erizaina, irakaslea, sexologoa eta haur taldea izango dira.

1. Jarduera: *ELKAR EZAGUTZEN*

AZALPENA: Elkar ezagutzeko jolasak, edozein saio egin aurretik konfiantzazko giroa sortzeko egiten dira. Nahiz eta haurrak jada elkarren artean ezagutu, heziketa emango duten pertsonak bere partaide gisa hartu ahal izateko burutuko dira.

1. JOLASA: Non ziztatu dit erleak?

Jokoaren helburua klaseko izenak ikastea da. Horretarako, lehendabizi, hurrek borobil bat osatuko dute eta erizainak jokoa azalduko du: Lehenengo pertsonak ondorengo esaldia esango du: “Kaixo ni June (bakoitzak bere izena esango du) naiz eta erleak hemen ziztatu dit” (hori esaten duen bitartean, gorputzeko atal bat ukituko du, esaterako begia). Jarraian, Juneren eskuinean dagoen pertsonak ondorengo esaldia esango du: Bera June da eta erleak hemen ziztatu dio (Juneren begia ukituz) eta “Ni Jon naiz eta erleak hemen ziztatu dit” (norberaren gorputzeko beste atal bat ukitzen duen bitartean) (28).

2. JOLASA: Zer gustatzen zait?

Jokoaren helburua izenak eta pertsona bakoitzak gustuko duen jarduera ikastea izango litzateke. Hurrek borobilean jarraituko dute eta erizainak jokoa azalduko du:

- Lehenengo zatia: Erizainak bere izena esango du eta keinuen bitartez gustatzen zaion zerbait (gitarra jotzea, liburuak irakurtzea...) eta borobilean dauden hurrek zer gustatzen zaion asmatu beharko dute. Ondoren, keinua asmatu duen pertsonaren txanda izango da eta dinamika berdina jarraituz, pertsonak, norberaren izena esango du eta gustuko duen zerbait imitatuko du (28).
- Bigarren zatia: Erizainak norbaiten izena esango du eta gainontzekoek pertsona horrek lehenago egin duen imitazioa egin beharko dute (28).
- Hirugarren zatia: Erizainak norbaitek lehenago egin duen imitazioa egingo du eta hurrek pertsona horren izena esan beharko dute (28).

TALDEKATZEA: Bi jolasetarako kide guztiek hezitzaileekin batera parte hartuko dute, lurrean borobil bat osatuz.

MATERIALA: Ez da inolako materialik behar.

IRAUPENA: Jarduerak 25 minutuko iraupena izango du: lehen jolasari 10 minutu eskainiko zaizkio eta bigarrenari 15 minutu.

2. Jarduera: *HOMOSEXUAL, HETEROSEXUAL ETA TRANSEXUAL*

AZALPENA: Talde dianaren aurre-ezagutzak jakiteko lehendabizi hurrei galdera batzuk egingo zaizkie:

- Noizbait, kalean, etxean... bi neska edo bi mutil elkar musukatzen ikusi dituzue?
- Norbaitek, bi amatxo edo bi aitaxo dituen haurren bat ezagutzen al du?
- Zer esan nahi du homosexual hitzak? Eta heterosexual hitzak? Eta transexual hitzak?
- Noizbait *gay* hitza entzun al duzue?

Galdera horiek egin ostean eta haurren erantzunak ikusita, haur bakoitzari hitz bana esango zaio: homosexuala, heterosexuala eta transexuala. Beraiek orri txuri esandako hitzaren bitartez, uste dutena marraztuko dute. Behin marrazkiekin amaituta eta haurren ezagutza maila ikusita, azalpenari ekingo zaio.

Azalpena sexologoak erizainarekin batera emango du. Horretarako, bi horma-irudi handi erabiliko dira. Batean, sexu orientazioa jarriko da, bertan bihotz bat irudikatuko delarik, haurrek maitasunarekin erlazionatu dezaten. Beste kartulinan, ordea, genero identitatea idatziko da, hemen garunaren argazki bat erabiliko da.

Alde batetik, sexu orientazioa dago, hau da, pertsona batengandik erakarrita sentiarazten duen sentimendua, esaterako, amatxo eta aitaxo. Kasu horretan, bakoitzaren sexua ezberdina denez, heterosexualak dira. Baina badaude pertsona batzuk bere sexu bereko pertsonetik erakarrita sentitzen direnak, neska bati beste neska bat gustatzea edo mutil bati beste mutil bat gustatzea, horiek homosexualak direla esaten da. Azaldutako pertsona guztien artean maitasun sentimendua dago, bakoitzak bestea maite du (29).

Bestalde, genero identitatea dago, horrek esan nahi du, jaiotzean agian neska bezala izendatzen da, baina urteak pasatu ahala, pertsona hori mutil sentitzen da. Nahiz eta kanpotik neska baten itxura izan, bere barruan mutil bat dela daki eta jendeak berarekin hitz egitean mutil bezala tratatzea nahi du. Adibidez, bere izena orain arte Joana izan da, baina hemendik aurrera Ander bezala deitzea nahi du (29).

TALDEKATZEA: Ikaskide guztiek batera parte hartuko dute, gaiaren inguruan dakitena konpartituz. Gero, bakoitzak bere mahaian marrazkia egingo du. Amaieran, guztiak borobil bat osatuz, sortarazten diren zalantzak elkarren artean argituko dira.

MATERIALA: 15 orri txuri, kolore ezberdinetako margoak, bi kartulina txuri handi, bihotzaren marrazki bat eta garunaren marrazki bat.

IRAUPENA: Jarduerak 35 minutu iraungo du gutxi gorabehera. 5 minutu galderak egiteko, ondoren, 10 minutu marrazkiak egiteko eta azalpenerako eta haurrak dituzten galderentzako 15 minutu. Azken 5 minutuak saioaren ebaluazioa egiteko erabiliko dira.

2. SAIOA: Transexualak ezagutzen

Saio horretan 2. Gaia landuko da. Hori 1.,2.,3. eta 4. helburu zehatzekin lotua dago eta horretarako bi jarduera burutuko dira. Bertan parte hartuko duten pertsonak, erizaina, irakaslea, transexualen elkarteko kide bat eta haur taldea izango dira. Hortaz gain, heziketan parte hartu nahi duten gurasoak ere gonbidatuko dira.

3. Jarduera: ERREPASOA

AZALPENA: Lehendabizi, haurrak aurreko saioan ikasitako kontzeptuak barneratu dituzten ikusteko galdera batzuk egingo dira:

- Aurreko egunean zer egin genuen?
- Zeri buruz hitz egin genuen?
- Gogoratzen al zarete zer desberdintasun dagoen homosexual eta heterosexual hitzen artean?

Kontzeptuak hobeto barneratzeko ikasleak hiru taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari kartulina txuri bat emango zaio. Bertan, erizain, irakasle eta transexualen elkarteko kide baten laguntzaz, homosexualitatea, heterosexualitatea eta

transexualitatea marraztuko dute:

- Homosexualitatea: Bi neska elkarrekin eta bi mutil elkarrekin eta horien artean bihotz bat.
- Heterosexualitatea: Neska bat eta mutil bat eta horien artean bihotz bat.
- Transexualitatea: Neska bat, barnean mutila dena eta mutil bat barnean neska dena (ahotik neska itxura duenak "Mutil bat naiz!" esaldia esango du eta mutil itxura duenak "Neska bat naiz!" esaldia esango du).

TALDEKATZEA: Ikasleak bost pertsonako hiru taldetan banatuko dira, eta hezitzaileen laguntzaz marrazkiak burutuko dituzte.

MATERIALA: Hiru kartulina handi eta kolore ezberdinetako margoak.

IRAUPENA: 30 minutu marrazkiak egiteko eta aurreko eguneko zalantzak argitzeko.

4. Jarduera: *TRANSEXUALAK EZAGUTZEN*

AZALPENA: Saioari esker, hurrek transexualitatearen kontzeptua ongi barneratzea lortu nahi da. Horretarako, osasun-heziketa ematen laguntzeko, ipuin bat garatu da.

Ipuinek haurrari kontzeptu, sentimendu eta jarrera ezberdinak esploratzeko ingurugiro aproposa eskaintzen dute. Gainera, garapen prozesurako material bikainak dira, izan ere, irakurketak autoestimua igo, erosotasuna eragin eta egoera ezberdinetara nola egokitu daitekeen irakasten baitute (30).

Biblioterapia, idatzizko materialen bitartez, gaixotasun, arazo zein gai ezberdinen inguruan haurrei komunikatzeko metodoa da. Horretarako, haurrak liburuko pertsonaiarekin identifikatuta sentitu behar du. Gainera, lagungarria izaten da, protagonistak eta haurrak antzeko adina izatea. Ipuina irakurtzeko orduan, irakurlea istorioan sartu behar da, ahoskera, intonazioa eta aurpegiera bezalako kontzeptuak landuz. Horrez gain, ipuinek, hasieran, arazoren bat aurkeztu behar dute, gerora, pertsonaiak amaierarako arazoaren konponbidea aurkitzen duelarik. Horrela, hurrek egoera horren aurrean arazoa nola konpondu dezakeen barneratzen dute. Ipuinak, umeei norberarekin alderatuz, ezberdinak diren beste pertsona batzuk onartzeko diseinatu daitezke. Ikerketen arabera, eskoletako erizainek *bullying* kasuak ekiditeko metodo arrakastatsua da (30).

Asmatutako material didaktikoko protagonistak Mikel du izena. Jaiotzean Jone izena ezarri arren, txikitatik bere barnean mutil sentitzen da eta bere benetako izena Mikel dela aldarrikatzen du. Jone izatetik Mikel izatera pasatzeko, lehendabizi, bere sentimenduak adierazten ditu eta horien artean beldurra eta tristura aurkitzen dira. Izan ere, bere familiari nahiz lagunei barnean gordetzen duen sekretu hori kontatzeko beldurra dauka. Beraz, ipuinean zehar beldurra eta tristura uxatzen jarduten du. Horrez gain, ipuinaren amaieran, ariketa batzuk prestatu dira, hurrek alua duten mutilak nahiz zakila duten neskak existitzen direla jakin dezaten. Gainera, gizarteko estereotipoak uxatzeko asmoz, ariketa mutilek ile luzea izan dezaketela eta neskek aldiz, motza, adierazteko prestatua dago (ikus 8.7. Eranskina).

Ipuina hurrei kontatzearen arduraduna irakaslea izango da. Izan ere, hurrak ipuina ongi ulertu dezan, lehenago aipatutako pausu zehatz batzuk jarraitu behar dira.

TALDEKATZEA: Haur guztiak borobilean jarriko dira eta irakasleak ipuina irakurriko du. Ondoren, transexualen elkarteko kideak, hurrek nahiz gurasoek gaiaren inguruan dituzten zalantzei erantzungo die.

MATERIALA: Sortu den ipuina.

DENBORA: 25 minutu ipuina kontatzeko eta ipuineko jarduerak nahiz jolasak egiteko. Ondoren, 5-10 minutu, hurrek dituzten zalantzak erantzuteko eta saioaren ebaluazio orria burutzeko.

3. SAIOA: Sentimenduak eta emozioak

Saio horretan 3. Gaia landuko da. Hori 4. eta 5. helburu zehatzekin lotua dago eta horretarako jarduera bat burutuko da. Bertan parte hartuko duten pertsonak, erizaina, irakaslea eta haur taldea izango dira.

5. Jarduera: SENTIMENDUAK EZAGUTZEN

AZALPENA: Ikasleak Lehen Hezkuntzan irudien, marrazkien, musikaren eta beste adierazpen ugariaren sortzaile, erabiltzaile eta hartzaile izaten dira, eta aldaketa asko eta handiak izaten dituzte jarduera horietan. Beste ikasgai batzuetan ez bezala, irudiak eta musika beti ageri dira, artistikoak izan edo ez, ikasleen bizitzako alderdi funtsezkoetan; esaterako, emozioetan, nortasunean eta sozializazioan (27).

Aipatu beharra dago, norbere gorputzarekin identifikatuta sentitzen ez diren pertsonen depresioa izateko, drogen munduan sartzeko, suizidio-ideiak izateko, bere buruari min egiteko nahiz bere buruaz beste egiteko arriskuak izaten dituztela (21). Horregatik, garrantzitsua izango litzateke, saioan zehar sentimenduen gaia lantzea.

Lehenik, hurrei sentimenduen eta emozioen inguruko galderak egingo zaizkie:

- Zer dira emozioak?
- Nola sentitzen zarete gaur?

RAEk sentimendu hitzaren bi definizio adierazten ditu: Bata “Norbera nola sentitzen den adierazten duena da”, eta bestea “Egoera afektibo bateko gogo aldartea da”. Emozioari dagokionez, gogo aldartearen aldaketa handia eta iragankorra, atsegina nahiz atsekabegarria izan daitekeena dela dio (4). Lehenago aipatutako bi galderak egin ondoren, irakasleak, modu ulergarri batean, hurrei sentimenduak zer diren azalduko dizkie.

Azalpen hori eman eta gero, musikaren jokoari ekingo zaio. Erizainak eta irakasleak musika ezberdinak jarriko dituzte eta horretarako, musika aparailuaren erabilera egingo dute. Hiru kanta erabiliko dira, batak tristura, besteak, beldurra eta azken kantak, aldiz, poztasuna sorraraziko die. Kanta bakoitzeko paper bat banatuko zaie eta beraiek sentitzen dutena marraztuko dute.

Kanta bakoitzaren amaieran hurrek beraien irudiak eta sentitutakoa azalduko dute. Ondoren, erizainak haur transexualek izaten dituzten ohiko sentimenduak azalduko ditu, izan ere, hasieran haur transexualek ez dakite zer gertatzen zaien eta zergatik sentitzen duten sentitzen dutena. Beraz, oso gaizki pasatzen dute eta zalantzak argitzeko, informazioa bilatzen hasten dira (20,23). Gainera, azaldu beharra dago, haur transexualen sentimenduen artean, beldurra agertzen dela. Batez ere, familian, ikastolan, lagunaren artean... ez onartzearen beldurra izaten dute. Horrez gain, tristura, haserre edo ondoez sentsazioa ere sentitu dezakete, gustuko ez duten gorputz batean egoteagatik. Baina, gerora, poztasuna eta lasaitasun sentimenduak ere izaten dituzte, batez ere, familia nahiz ingurukoekin hitz egitean eta horien onarpena entzutean (20,23).

Azalpen horiekin amaitu ondoren, erizainak hurrei artikuluetatik lorturiko transexualen elkarrizketa ezberdinetatik bildutako hitzak transmitituko dizkie:

“Lehenengo oroitzapenak hiru eta lau urtekoak dira, oroitzen dut gabonetan beti pitilin bat eskatzen nuela, eta panpinak ekartzen zizkidaten, bota egiten nituen” (23).

“Nik ez nekien zer gertatzen zitzaidan, baina banekien emakume sentitzen nintzela” (23).

“3-4 urte nituela ametsen munduan bizi nahi nuen, bertan nesken arropekin janzten nintzen eta horiek bezala jolasten ibiltzen nintzen. Horregatik ezkutuan, amaren nahiz ahizparen arropak janzten nituen” (5).

“Oroitzen naiz, behin, gurasoei neska noiz bihurtuko nintzen galdetu niela, izan ere, mutil izatetik neska izatera pasako nintzela banekien” (5).

“Gainontzekoek nik sentitzen nuena ez zutela ulertuko pentsatzen nuen, errudun sentitzen nintzen, ez nuen eskolara gona jantzita joan nahi” (5).

TALDEKATZEA: Egoki marraztu ahal izateko, haurrak beraien mahai eta aulkietan eserita egongo dira. Ondoren, azalpenak entzuteko, guztiak borobilean eseriko dira. MATERIALA: 45 orri txuri, kolore ezberdinetako margoak, musika aparailua eta hiru kanta.

IRAUPENA: Saioak ordubete eta bost minutu iraungo du gutxi gorabehera. 10 minutu hasierako galderak egiteko eta sentimenduak zer diren azaltzeko, 35 minutu jarduera burutzeko. Gero, 15 minutu transexualen sentimenduen ingurukoak azaltzeko eta artikuluetako elkarrizketetatik ateratako sentimenduak irakurtzeko. Azken bost minutuak galderak erantzuteko eta saioaren ebaluazio orria egiteko erabiliko dira.

4. SAIOA: Eskola jazarpena edo *Bullying*-a

Saio horretan 4. Gaia eta 5. Gaiaren zati bat landuko da. Horrek 4.,5.,6.,7. eta 8. helburu zehatzekin lotuak daude eta horretarako bi jarduera burutuko dira. Bertan parte hartuko duten pertsonak, erizaina, irakaslea eta haur taldea izango dira. Hortaz gain, saio horretan, heziketan parte hartu nahi duten gurasoak ere gonbidatuko dira.

6. Jarduera: ZER DA BULLYING-A?

AZALPENEA: *Bullying*-a edonorrek sufritu dezake eta bazterketa horren definizioetako bat honakoa izango litzateke: “Ikasle bat eraso da edo biktima bihurtzen da beste ikasle batek edo batzuek gauzatutako ekintza negatiboak pairatzen dituen behin eta berriro

eta denbora jakin batean zehar". Eskola jazarpen moten artean, besteak beste, bazterketa eta marjinazio soziala, ahozko eraso, zeharkako eraso fisikoa (norbaiti gauzak ezkutatzea, puskatzea edo lapurtzea), eraso fisiko zuzena eta larderia/xantaia/mehatxua aurkitzen dira (31).

Transfobia pertsona batek transexualen onarpenarekiko aurkako jarrera adieraztea izango litzateke, pertsona transexuala norbere aurkari, gutxiago edo anormal bezala hartzen duelarik (15). Berdinu elkarteak 2013-2014 urteen bitartean eginiko ikerketa batean, gazteen % 27ak izaera homofobia izan dutela onartu zuten, irainen, txutxumutxuen eta eraso fisikoen egile izanik. Horrez gain, inkestan parte hartutako erdien ustez, eskola ez da toki segurua homosexualentzat nahiz transexualentzat. Izan ere, ikasleen gehiengoan aburuz, ikasgelako batek *gay*, lesbiana, bisexual edo transexuala dela esanez gero, pertsona asko, ikasgelan nahiz aisialdian, bere aurka agertuko zirela adierazi zuten (32). Onarpen ezak, marjinazioak eta diskriminazioak transexualen bizitzan suizidio-ideietara eramaten dutela ikusi da (20).

Haurrak borobilean jarriko dira eta galdera batzuk egingo zaizkie:

- Noizbait zuen lagunengandik baztertuak sentitu zarete?
- Orain arte haur transexualen inguruan landu dugu, ikasgelan horrelako norbait egonez gero, zer egingo zenukete?

Horren inguruan hitz egin ondoren, bazterketa bat emanez gero, zer egin behar duten adieraziko zaie.

Bullying hitza ingelesetik dator eta norbaiti ikaratzea esan nahi du. Hau da, norbait eragotzi edo min egitea, horrela, pertsona horri beldurra eraginez. Neska nahiz mutil batek edo talde batek, behin baino gehiagotan denboran zehar, pertsona bati beldurra sortzea, gaizki sentiaraztea... izango litzateke. Gainera, egoera hori edonon eman daiteke, eskolan, kirol-entrenamenduetan, kalean... (33,34).

Pertsona bati gaizki tratatzeko era desberdinak daude, esaterako, jotzea, bultza egitea, hitzen bitartez iraintzea, hitz zatarrak esatea, barre egitea, jolasten ez uztea, taldetik botatzea, beti baztertzea edo norbaitengatik gaizki esaka ibiltzea, gainontzekoak bere lagunak ez izateko (33). Baina gauza batzuk bereizi behar dira, batzuetan, pertsona batzuekin haserretzea, jokoren batean eztabaidaren bat sortzea edo hitz zatarren bat

esatea, nahiz eta gaizki eginiko jarrerak izan, ez litzateke *bullying* egoera bat izango. Izan ere, *bullying*-a behin eta berriz pertsona horri bakarrik uztea, iraintzea... izango litzateke, eta, aldiz, aurreko egoera horiek behin bakarrik edo une jakinen batean gertatutako egoerak dira (33,34).

Zer egin behar da une oro pertsonaren bati norbaitek gaizki sentiaraztea eragiten badio? Hurrei azaldu behar zaie konfiantzazko heldu bati laguntza eskatu behar diotela (ama, aita, irakaslea...). Horrez gain, azaldu beharra dago, *bullying* egoeren aurrean ez dela berdin erantzun behar, esaterako, norbaitek jo eginez gero, ez da berriz pertsona horri jo behar. Bestalde, egoera horretan aurkitzen diren neska-mutilei hitz politak esatea eta bere errua ez dela jakinaraztea lagungarria izaten da. Izan ere, pertsona hori gaizki sentitzen da eta norbaiten laguntza behar du. Horregatik, "Sentitzen dut gertatzen ari dena", "Gertatzen ari dena, ez da zure errua" eta "Lasai egon, ni zure laguna naiz" bezalakoak esatea lagungarria izango litzateke (33,34).

Haur transexualetan murgilduz, beraien pentsamenduak beste batzuenak bezalakoak ez izateagatik horrelako egoerak pairatzen dituztela azaldu behar da. Ondorioz, irain horiek pertsonari min handia egiten diote, tristura sortaraziz, lagunik ez dutela pentsaraziz... (22,34).

Azalpenarekin amaitu ostean, hurrek kontzeptuak barneratu dituzten ikusteko, semaforoaren jolasa burutuko da. Horretarako, haur bakoitzari hiru kartulina zati banatuko zaizkio (gorria, horia eta berdea). Gero, egoera batzuk azalduko zaizkie eta hurrek, borobilean dauden bitartean, egoera azaldu ostean, gorri hori edo berde kartulina zatia atera beharko dute. Berdea egoera zuzena izango litzateke, horia, nahiz eta *bullying* egoera ez izan, pertsonari min egiten dion egoera da, eta gorria, aldiz, *bullying* egoera izango litzateke (34).

Semaforoaren jolaseko egoerak (34):

1. Klaseko kide bati zerbait galtzean, laguntzea. Erantzuna: Berdea.
2. Egunero klaseko kide bati aurpegira barre egitea eta min egingo dion hitzak nahita esatea. Erantzuna: Gorria.
3. Lagunari entzutea eta horrek esandakoa kontutan edukitzea. Erantzuna: Berdea.
4. Egun batean, pertsona batekin haserretzea eta momentu horretan bakarrik hitz zatarren bat esatea. Erantzuna: Horia

5. Jokoetan, pertsona berdinari, behin eta berriro, parte-hartzen ez uztea.
Erantzuna: Gorria.

TALDEKATZEA: Guztiak borobilean jarriko dira.

MATERIALA: Jarduerarako, bi kartulina hori, bi kartulina berde eta bi kartulina gorri beharko dira.

IRAUPENA: Hasierako galderak egiteko eta azalpena emateko 30 minutu.

7. Jarduera: ANTZERKIA PRESTATZEN

AZALPENA: Haurrak hiru-lau pertsonako talde txikitik banatuko dira. Talde bakoitzari egoera bat azalduko zaio eta beraiek irudimenaren bitartez, egoera hori nola irudikatuko luketen pentsatu beharko dute. Irakasleak bi haur talde hartuko ditu eta erizainak beste bi. Horrez gain, talde bakoitzari, antzerkiaren gidoia edo ekarri beharreko materiala egoki prestatu ahal izateko heziketara etorritako gurasoen laguntza ere eskainiko zaie (ikus 8.8. Eranskina).

TALDEKATZEA: Guztiak borobilean jarriko dira.

MATERIALA: Antzerkiaren gidoia prestatu ahal izateko, orri txuriak, arkatzak eta margoak behar dira.

IRAUPENA: Jarduerak 30 minutu iraungo du. Azken bost minutuak zalantzak argitzeko eta saioaren ebaluazio orria betetzeko erabiliko dira.

5. SAIOA: Transexualen egoeran jartzen

Saio horretan 5. Gaia landuko da. Hori 4.,5.,6. eta 8. helburu zehatzekin lotua dago eta horretarako jarduera bakarra burutuko da. Bertan parte hartuko duten pertsonak, erizaina, irakaslea eta haur taldea izango dira. Horrez gain, heziketan parte hartu nahi duten gurasoak ere gonbidatuko dira.

8. Jarduera: ANTZERKIAK

AZALPENA: Haur talde bakoitzak aurreko saioan emandako egoerak antzeztuko dituzte.

TALDEKATZEA: Ikasleen antzezlanak ikusteko, haur, hezitzaile eta gurasoek lurrean ilarak osatuko dituzte.

MATERIALA: Haur bakoitzak antzerkirako beharrezko materiala ekarriko du. Irakasleak, aldiz, haurrek aurretik eskatutako materiala eramango du.

IRAUPENA: Saioak ordubete iraungo du. Haur talde bakoitzak 10-15 minutu izango ditu antzerkia burutzeko eta soberako denbora, hurrek dituzten galderei erantzunak emateko eta saioaren nahiz osasun-heziketa orokorraren ebaluazio orria betetzeko erabiliko da.

5.1.4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Osasun-hezkuntzaren ebaluazioa egitearen xedea, irakatsi nahi izan diren kontzeptuen inguruko eta egoera errealeko informazioa biltzeari dagokio, horrela, hobekuntzak egin ahal izateko (26).

- Nork ebaluatzen du? Hezitzaileek, parte hartu duten pertsonak eta kanpoko behatzaileek ebaluatzen dute (26). Prestatu den osasun-heziketan, erizainak, sexologoak, transexualen elkarteko kideak, irakasleak, gurasoek eta ikasleak ebaluatuko dute.
- Zer ebaluatzen da?
 - o Emaizak: Hasieran planteatutako helburuak bete diren ala ez (26).
 - o Prozesua: Planteatutako programazioa eta jarduerak egokiak izan diren ala ez (26).
 - o Egitura eta errekurtsioak: Denbora nahikoa izan den, tokia egokia izan den, ordua kopurua gutxiegi, nahikoa edo gehiegi izan den, material didaktikoa ongi prestatua zegoen eta heziketa eman duten pertsonak nola eman duten (26).
- Nola ebaluatzen da? Prozedura ezberdinak erabiltzen dira helburu eta eduki ezberdinak ebaluatzerako orduan. Esaterako, erregistroak, galdetegiak... (26)
- Noiz ebaluatzen da? Ebaluazioa era jarraituan egin behar da, irakasketa-ikasketa prozesuan zehar. Komenigarria da saio bakoitzaren amaieran ebaluazio bat egitea eta ondoren, amaierako saioen ostean, ebaluazio oso bat egitea (26).

Kasu honetan, ebaluazioa egiteko galdetegiak eta behaketa gidoiak erabiliko dira. Haurren kasuan, aurrez ezarritako pausuak beraien adinera aplikatu dira, horrela, modu erraz batean beraien iritzia jasotzeko asmoz. (ikus 8.9. Eranskina). Horrez gain, saioaren amaieran, hezitzaileek (irakaslea, erizaina, transexualen elkarteko kidea eta sexologoa) saioaren inguruko behaketa gidodia beteko dute (ikus 8.10. Eranskina) eta behatzaile bezala etorri diren gurasoek, aldiz, ebaluazio galdetegi bat (ikus 8.11. Eranskina), horrela, gerora, osasun-heziketari hobekuntzak egiteko asmoz. Saio guztiak amaitzean,

hezitzaile, behatzaile eta ikasleek, jasotako saio guztiak kontuan hartuta ebaluazio orokor bat egingo dute. Horretarako erabiliko den ebaluazio orria saioen amaieran erabilitako bera izango da.

5.2. MATERIAL DIDAKTIKOA

Pedagogia narratiboak erizainek osasun-hezkuntza emateko hainbat eremuetan eragiten du. Erizaintzako osasun-heziketa emateko, ipuinen onuren inguruan gutxi idatzi bada ere, ikusi da, oso eraginkorrak direla umeei zerbaiten azalpena ematerako orduan. Izan ere, istorioek bizitzako hainbat aspektu desberdin jorratu ditzakete, horrela, haurrak horri buruzko kontzeptuak erraz barneratuz (35).

Istoriok, ipuinak, jolasak, olerkiak, kantuek... adin guztietako haurrentzat eginak daude, baina, bereziki, txikienentzat. Haurrak istorioei lotuta oso erraz gelditzen direnez, ipuinak osasun arloan irakasteko eta ikasteko teknika bezala erabiltzeko metodologia paregabeak dira (36).

Eskola irakurketak osasun-psikikoan, hizkeran, garapen emozional eta sozialean, ikasteko motibazioan, sormenean eta ezagutza orokorretan laguntzen duela frogatu da, garunaren garapen eta ikaste goiztiarrerako ezinbesteko metodologia delarik. Horregatik, haurtzarotik hasita, janari intelektuala dela esan daiteke (37,38). Gainera, irakurleek ipuinak nola kontatzen diren jakitea garrantzitsua da, bertako ezaugarriak (koloreak, zenbakiak, hitzak eta objektuak) kontuan hartu behar baitira (37). Horrez gain, ipuinek, nahiz eta ikasteko gogorik ez eduki, irakatsi egiten dute, kontziente, prekontziente eta inkontzientean eragiten baitute. Ipuinaren indar pedagogiko hori bere egitura sekuentzial-linealari, antzemateko errazak diren pertsonaiei eta idazteko era linguistiko errazari esker izaten da, horrela, haurren oroimenak esfortzurik egin gabe gordetzea lortzen du. Gainera, jarduera intelektualerako hain garrantzitsuak diren imajinazioa eta abstrakzio gaitasuna sustatzen ditu (38).

Ipuin on batek hiru atal garrantzitsu izan behar ditu, plangintzazko egitura lineal bat, korapilo bat eta amaiera. Korapiloa, ipuinaren amaieran konponduko den gatazka bat izango litzateke eta protagonistak, ipuinean zehar, gatazka horri konponbidea bilatzeko erak aurkitu behar ditu. Entzuleak ipuinaren garapenari lotuta gelditzen dira, protagonistaren rolean sartuz eta horrek bizi dituen emozioak bizituz. Azkenik, ipuinaren amaieran, trebetasunaz eta eraginkortasunaz baliatuz, konponbidea aurkitzen du, ausardiaz jokatzuz eta balio duten gauzengatik borrokatuz, porrotak onartuz eta norbere

adimenaren bitartez estrategia berriak erabiliz, berriz saiatuz. Aipatutako guztia kontuan hartuta, ipuinak komunikatzeko era bikain eta eraginkorrak direla esaten da (38).

Beraz, ikasgeletan haurren sena, imajinazioa, arrazoimena, abstrakzioa, behaketa eta oroimena garatzeko tresna intelektual bezala erabili behar dira (38). Horrez gain, garrantzitsua da hizkuntza modu sexistan ez erabiltzea, irudietan emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa bermatzea hain zuzen ere (27).

Sortu den material didaktikoak Mikelen istorioa kontatzen du. Mikel 7 urteko mutiko bat da eta berak, zakila izan beharrean, alua dauka. Jaiotzean, June izena ezarri zioten eta, beraz, ipuina June izatetik Mikel izatera egindako pausoak adierazten ditu. Horretarako, barnean dituen sentimendu batzuk azaltzen ditu eta horietatik bi uxatu nahi ditu, beldurra eta tristura. Ipuinaren amaieran, hurrek erantzun behar dituzten galdera batzuk prestatzeaz gain, joko didaktiko bat ere prestatu da. Bertan, bi pertsona irudikatu dira eta pertsona horiek ahotik bakoitzak izan nahi duena eta jantzi nahi duena adierazten dute, hurrek horien esana bete beharko dutelarik.

6. EKARPEN PERTSONALA

Gizarteak sexu eta genero hitzak bateratu egiten ditu kontzeptu bakar batean. Sexua organo-sexualen bitartez ezberdintzen du (emakumezkoek alua eta gizonezkoek zakila), eta genero hitzari, aldiz, bi sexu horiek ezberdintzeko ezaugarri batzuk aplikatzen dizkio. Horrela, normaltasunaren bi arlo ezartzen ditu, emakumezkoa izatea edo gizonezkoa izatea, bertatik at sentitzen den edonor arrarotzat hartzen dela aditzera emanez.

Gaur egun, gizarte laiko batean bizi bagara ere, erlijioak arrasto nagusia utzi digula uste dut. Gure buruak oso modernotzat eta adimen irekitzat eduki arren, kalean bi neska edota bi mutil musukatzen ikustean, arraroa dela edo normaltasunetik at dagoela iruditzen zaigu. Horrez gain, zer esanik ez, herrietan norbaiten alaba edo semea transexuala dela plazaratzen denean.

Hezkuntza munduari kritika konstruktiboa eginez, ohartu nahiz nire ikasketa prozesuan zehar ez dudala transexualen inguruko ukiturik jaso. Nolatan jakingo dugu transexualitatea zer den, gizartearen funtsa den hezkuntzak, horren aurrean begiak ixten baditu?

Gainera, artikulu eta txosten ezberdinak irakurriz, homofobia gizartean barneratua dagoen kontzeptua dela konturatu naiz. Homosexualek lagunak izatea eta horien onarpena edukitzea sortetzat hartzen dute. Heterosexuala izateagatik lagunak edukitzea sortea dela pentsatzen al dugu?

Egun, haur transexualen inguruan orain dela urte batzuk baino gehiago entzuten dela argi dago, baina lana aurrera garatzen joan naizen heinean, oraindik informazio gabezia dagoela iruditu zait. Egia da, gauza asko ustetzat ematen ditugula, baina uste eta suposizioek akatsak egitera eraman gaitzakete. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zait eskoletan edo unibertsitatean orientazio sexualaren inguruan nahiz genero identitatearen inguruan hitz egitea, izan ere, eskolan sexualitatearen inguruan jasotako nire heziketa heterosexualitateari buruzkoa izan baita. Beraz, normaltasunaren alorra landu ezean, diskriminazioak, tratu txarrak, norbere buruarekin gaizki sentitzeak... ematen direnez, horiek ekiditeko asmoz heziketaren beharra argi plazaratzen da.

Nire iritziz, lehen arreta mailako erizaina komunitatearen beharretara egokitu behar da eta kasu honetan, informazio gabeziaren beharrera egokitu beharko litzateke. Hemen diziplina anitzeko taldearen beharra azpimarratuko nuke, izan ere, erizainak pertsona horien beharrei egoki erantzuteko, ezinbestekoa izango da elkarte ezberdinekin, sexologoarekin nahiz hezkuntza-sistemeekin harremanetan jartzea. Guztiak bateratuz, gizarteari falta zaion informazio egokia transmitituko litzatekela uste dut.

Erizaintzaren lana justifikatzeko, garatutako osasun-heziketa proiektua NANDAko Ezagutza gabezia [00126] diagnostikoaren etiketarekin lotuko nuke (39). Heziketaren parte izango diren haurretan eta gurasoetan haur transexualen inguruko ezagutzak hobetzea izango litzateke gakoa.

Azkenik, aipatu beharra dago osasun-heziketa proiektua etorkizunera begira sortu dudala. Oraindik ez da martxan jarri eta beraz, proiektuaren hutsuneak ikusteko eta aldaketak egiteko itxaron egin behar da.

7. BIBLIOGRAFIA

- (1) Becerra A, Lucio MJ, Rodríguez JM, Asenjo N, Pérez G, Frenzi M, et al. Transexualidad y adolescencia. Rev Int Androl [Internet]. 2010 [atzitze data: 2016/11/23];8(4):165-171. Eskuragarri: <http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S1698031X10700315>
- (2) Rabito MF, Rodríguez JM. Satisfacción con la vida y bienestar psicológico en personas con Disforia de Género. Actas Esp Psiquiatr [Internet]. 2016 [atzitze data: 2016/11/23];44(2):47-54. Eskuragarri: <https://www.medes.com/Public/ResumePublication.aspx?idmedes=109459>
- (3) Fernández M, García E. Variables clínicas en el trastorno de identidad de género. Psicothema [Internet] 2012 [atzitze data: 2016/11/23];24(4):555-560. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4650244>
- (4) Rae.es, Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española [Internet]. Madrid: Rae.es; 1993 [atzitze data: 2017/02/20]. Eskuragarri: <http://www.rae.es/>
- (5) Sandoval EM. Un lugar en el mundo: condiciones de vida de personas transexuales y transgénero en la Ciudad de México. Revista trabajo social [Internet]. 2008 [atzitze data: 2016/11/23];(18):112-125. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4339682>
- (6) Osborne R. Transgenerismos, una aproximación de etnografía extrema: entrevista a Norma Mejía. Política y sociedad [Internet]. 2009 [atzitze data: 2016/11/23];46(1):129-142. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3141637>
- (7) Rager P. Improving nursing care for lesbian, bisexual, and transgender women. J Obstet Gynecol Neonatal Nurs [Internet]. 2014 [atzitze data: 2017/01/19];43(4):520-530. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/24980549>
- (8) Fundaciondaniela.org, Fundación Daniela [Internet]. Madrid: Fundaciondaniela.org; 2015 [atzitze data: 2016/11/23]. Eskuragarri: <http://www.fundaciondaniela.org/>
- (9) Terrasa S, Mackintosh R, Piñero A. La atención de pacientes lesbianas, gays y bisexuales y transgénero (segunda parte). Evid Act Pract Ambul [Internet]. 2011 [atzitze data: 2016/11/23];14(3):104-105. Eskuragarri:

<http://www.bibliotecacochrane.com/BCPGetDocument.asp?SessionID=%2011587840&DocumentID=EVIARG2986>

(10) Rodríguez JM, Asenjo N, Lucio MJ, Pérez G, Rabito MF, Fernández MJ, et al. Abordaje psicológico de la transexualidad desde una unidad multidisciplinaria: la Unidad de Trastornos de Identidad de Género de Madrid. Rev int Androl [Internet]. 2009 [atzitze data: 2016/11/23];7(2):112-120. Eskuragarri:

<http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S1698031X09716164>

(11) Asenjo N, Rodríguez J, Lucio M, Becerra A. Abordaje multidisciplinar de la transexualidad: desde atención primaria a la Unidad de Trastornos de Identidad de Género de Madrid (UTIG MADRID). SEMERGEN-Medicina de Familia [Internet]. 2011 [atzitze data: 2016/11/23];37(2):87-92. Eskuragarri:

<http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S113835931000403X>

(12) Ristori J, Steensma TD. Gender dysphoria in childhood. Int Rev Psychiatry [Internet]. 2016 [atzitze data: 2016/11/23];28(1):13-20. Eskuragarri:

<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/26754056>

(13) Fernández M, Guerra P, Martín E. Reflexiones en torno al marco epistemológico de la disforia de género. Rev Esp Salud Pública [Internet]. 2016 [atzitze data: 2016/11/23];90(1):1-4. Eskuragarri:

<https://www.medes.com/Public/ResumePublication.aspx?idmedes=114574>

(14) Chrysallis.org, Chrysallis: Asociación de Familias de Menores Transexuales [Internet]. España: Chrysallis.org; 2014 [atzitze data: 2016/11/23]. Eskuragarri:

<http://chrysallis.org.es/>

(15) Gizartelan.ejgv.euskadi.eus, Berdindu [Internet]. Euskadi.eus; 2010 [eguneratua: 2015/02/17; atzitze data: 2017/02/20]. Eskuragarri:

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-content/es/contenidos/informacion/tienes_dudas/es_transexu/transexualidad.html

(16) Esteva I, Asenjo N, Hurtado F, Fernández M, Vidal A, Moreno Ó, et al. Documento de posicionamiento: disforia de género en la infancia y la adolescencia. Grupo de Identidad y Diferenciación Sexual de la Sociedad Española de Endocrinología y Nutrición (GIDSEEN). Endocrinol Nutr [Internet] 2015 Oct [atzitze data:

2016/11/23];62(8):380-383.

Eskuragarri:

<https://www.medes.com/Public/ResumePublication.aspx?idmedes=104919>

(17) Wittich R. Atención psicomédica a personas transexuales en España en la era de la despatologización de la transexualidad como trastorno mental. Una revisión global. Endocrinol Nutr [Internet]. 2013 [atzitze data: 2016/11/23];60(10):599-603. Eskuragarri: <https://www.medes.com/Public/ResumePublication.aspx?idmedes=86556>

(18) Fernández M, Guerra P, García E. La 7ª versión de los Estándares Asistenciales de la WPATH: un enfoque diferente que supera el dimorfismo sexual y de género. Rev Asoc Esp Neuropsiquiatr [Internet]. 2014 [atzitze data: 2016/11/23];34(122):317-35. Eskuragarri: <https://www.medes.com/Public/ResumePublication.aspx?idmedes=89887>

(19) García DJ. Bestiario jurídico: dispositivos de normalización ante la transexualidad. Anales de la Cátedra Francisco Suárez [Internet]. 2015 [atzitze data: 2016/11/23];(49):395-415. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5239496>

(20) Riley EA, Clemson L, Sitharthan G, Diamond M. Surviving a gender-variant childhood: The views of transgender adults on the needs of gender-variant children and their parents. J Sex Marital Ther [Internet]. 2013 [atzitze data: 2017/01/19];39(3):241-263. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/23356537>

(21) Alegría CA. Gender nonconforming and transgender children/youth: Family, community, and implications for practice. J Am Assoc Nurse Pract [Internet]. 2016 Oct [atzitze data: 2016/11/23];28(10):521-527. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/27031444>

(22) Ararteko. Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan: hausnartzeko eta parte hartzeko foroak Ararteko. [Interneteko monografia]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; 2008 [atzitze data: 2016/11/23]. Eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1819_1.pdf

(23) Biker SL, Herrero I, Díaz C, Lamarca I, Hernández J, López de Foronda F et al. Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin. [Interneteko monografia]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; 2009 [atzitze data: 2016/11/23]. Eskuragarri:

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1719_1.pdf

(24) Moyano CM, Delgado M, Rodriguez R, López R, Cueto A, Gálvez R. El cuento como técnica de educación sanitaria en escolares. Gaceta Sanitaria [Internet] 1989 [atzitze data: 2017/01/20];3(13):461-466. Eskuragarri:

<http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S021391118971863X>

(25) Hardacker CT, Rubinstein B, Hotton A, Houlberg M. Adding silver to the rainbow: The development of the nurses' health education about LGBT elders (HEALE) cultural competency curriculum. J Nurs Manag [Internet]. 2014 Mar [atzitze data: 2017/01/19];22(2):257-266. Eskuragarri:

<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/23869475>

(26) Pérez MJ, Echauri M, Ancizu E, Chocarro J. Manual de educación para la salud. [Interneteko monografia]. Navarra: Instituto de Salud Pública del Gobierno de Navarra; 2006 [atzitze data: 2016/01/19]. Eskuragarri:

<https://www.navarra.es/NR/ronlyres/049B3858-F993-4B2F-9E33-2002E652EBA2/194026/MANUALdeeducacionparalasalud.pdf>

(27) Lehen Hezkuntzako curriculum. Abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUA, (EAEko buletin ofiziala), 9 zk [atzitze data: 2017/01/20]. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>

(28) Hezkuntza.ejgv.euskadi.eus, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saila [Internet]. Euskadi.eus; 2004 [eguneratua: 2015/10/27; atzitze data: 2017/01/25]. Eskuragarri:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43573/es/contenidos/informacion/dia6/es_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/HARRERA_DOKUMENTUAK/MATERIALES_PRIMEROS_DIAS/C_2_OSOA.pdf

(29) Adelson SL, Walter HJ, Bukstein OG, Bellonci C, Benson RS, Chrisman A, et al. Practice parameter on gay, lesbian, or bisexual sexual orientation, gender nonconformity, and gender discordance in children and adolescents. J Am Acad Child Adolesc Psychiatry [Internet]. 2012 Sep [atzitze data: 2016/11/23];51(9):957-74. Eskuragarri:

<http://www.guideline.gov/content.aspx?f=rss&id=38417>

- (30) Tielsch A. Children's books for use in bibliotherapy. J Pediatr Health Care [Internet]. 2011 Jan-Feb [atzitze data: 2017/01/20];25(1):57-61. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/21147409>
- (31) Eusko Jaurlaritzako hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida. [Interneteko monografia]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; 2015 [atzitze data: 2017/01/25]. Eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/eu_5613/adjuntos/eskola_jasarpna_gida_2015.pdf
- (32) Gehitu (Berdindu Gipuzkoa), Guztiok Elkarte (Berdindu Eskolak). Actitudes ante la diversidad afectivo-sexual en las aulas. [Interneteko monografia]. Donostia/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; 2014 [atzitze data: 2017/02/20]. Eskuragarri: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu/es_berdindu/adjuntos/actitudes%20an%20la%20diversidad%20afectivo-sexual.pdf
- (33) Apa.org, American Psychological Association [Internet]. Washington: apa.org; 1892 [atzitze data: 2017/03/01]. Eskuragarri: <http://www.apa.org/centrodeapoyo/intimidacion.aspx>
- (34) Cartoon Network, plan internacional, world vision, OEI. Niños y niñas de escuela primaria. Información y actividades; 2012 [atzitze data: 2017/02/20]. Eskuragarri: http://www.bastadebullying.com/pdf/es/Basta_toolkit_estudiantes_primaria.pdf
- (35) Crawley JM. "Once Upon a Time": A Discussion of Children's Picture Books as a Narrative Educational Tool for Nursing Students. J Nurs Educ [Internet] 2009 Jan [atzitze data: 2017/01/20];48(1):36-39. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/19227754>
- (36) Wyatt TH, Hauenstein E. Enhancing children's health through digital story. Comput Inform Nurs [Internet]. 2008 May-Jun [atzitze data:2017/01/20];26(3):142-8. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/18438149>
- (37) Council On Early Childhood, Council On School Health. The Pediatrician's Role in Optimizing School Readiness. Pediatrics [Internet]. 2016 Sep [atzitze data: 2017/01/20];138(3). Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/27573085>

(38) Marín M. El valor matemático de un cuento. Sigma: revista de matemáticas [Internet]. 2007 Nov [atzitze data: 2017/02/15];(31):11-26. Eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dia6_sigma/es_sigma/adjuntos/sigma_31/3_val_matematico.pdf

(39) Elsevier. NANDA, NOC, NIC Consult [Internet]. Barcelona: nnnconsult.com; 2015 [atzitze data: 2017/04/15]. Eskuragarri: <https://www.nnnconsult.com/>

8. ERANSKINAK

8.1. Eranskina: “Haur transexualen inguruko onarpena sustatzen duten osasun- hezkuntza programak” bilaketaren datu esanguratsuenak

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA	B A R N E - I R I Z P I D E A K	ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
Trip Database	(transgender persons)(health education)(acceptance)	104*		5	0
		104*2		12	0
	(transsexual children)(nursing)(health education)	11		10	1
MEDES	((("personas transgénero"[todos]) AND "educación para la salud"[todos]) AND "aceptación"[todos])	0			
	("personas transgénero"[todos]) AND "educación para la salud"[todos])	0			
	("personas transgénero"[todos]) AND "aceptación"[todos])	0			
	((("niños transexuales"[todos]) OR "personas transgénero"[todos]) AND "enfermería"[todos]) AND "educación para la salud"[todos])	0			
Cochrane plus	(personas transgénero) AND (educación para la salud) AND (aceptación)	0			
	(personas transgénero) AND (educación para la salud)	0			
	(personas transgénero) AND (aceptación)	0			
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (educación para la salud)	1	1	1	
PubMed	((transgender persons) AND health education) AND acceptance	17	14	1	
	((transsexual children) OR transgender persons) AND nursing) AND health education	37	34	2	

DATU BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
BVS	(tw:(personas transgénero)) AND (tw:(educación para la salud)) AND (tw:(aceptación))	0	B A R N E - I R I Z P I D E A K		
	(tw:(personas transgénero)) AND (tw:(educación para la salud))	23		21	2
	(tw:(niños transexuales)) OR (tw:(personas transgénero)) AND (tw:(enfermería)) AND (tw:(educación para la salud))	2		2	2
Dialnet	(personas transgénero) AND (educación para la salud) AND (aceptación)	0			
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (educación para la salud)	0			
Science direct	(personas transgénero) AND (educación para la salud) AND (aceptación)	3			3
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (educación para la salud)	3		2	1
Cuiden	(personas transgénero) AND (educación para la salud) AND (aceptación)	0			
	(personas transgénero) AND (educación para la salud)	0			
	(personas transgénero) AND (aceptación)	1		0	0
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (educación para la salud)	0			

* *Systematic reviews* irizpidea gehitu zaio.

*2 *Guideline* irizpidea gehitu zaio.

Iturria: Propioa.

8.2. Eranskina: “Haur transexualen ezagutza eta onarpena bultzatzen dituzten erizaintzazko artikulua” bilaketaren datu esanguratsuenak

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK	
Trip Database	(transsexual children)(nursing)(knowledge)	7		7	1	
MEDES	((("niños transexuales"[todos] OR "personas transgénero"[todos]) AND "enfermería"[todos]) AND "conocimiento"[todos])	0	B A R N E - I R I Z P I D E A K			
	((("niños transexuales"[todos] OR "personas transgénero"[todos]) AND "enfermería"[todos]) AND "aceptación"[todos])	0				
	((("niños transexuales"[todos] OR "personas transgénero"[todos]) AND "enfermería"[todos])	0				
Cochrane plus	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (conocimiento)	0				
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (aceptación)	0				
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería)	0				
PubMed	((transsexual children) OR transgender persons) AND nursing) AND knowledge	19		18	2	
	((transsexual children) OR transgender persons) AND nursing) AND acceptance	6		4	0	

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK		
BVS	(tw:(niños transexuales)) OR (tw:(personas transgénero)) AND (tw:(enfermería)) AND (tw:(conocimiento))	0	B A R N E - I R I Z P I D E A K	24	2		
	(tw:(niños transexuales)) AND (tw:(personas transgénero)) AND (tw:(enfermería)) AND (tw:(aceptación))	0					
	(tw:(niños transexuales)) OR (tw:(personas transgénero)) AND (tw:(enfermería))	38					
Dialnet	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (conocimiento)	0					
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (aceptación)	0					
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería)	0					
Science direct	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (conocimiento)	5				4	1
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (aceptación)	2				1	0
Cuiden	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (conocimiento)	1				0	0
	(niños transexuales) OR (personas transgénero) AND (enfermería) AND (aceptación)	1				0	0

Iturria: Propioa.

8.3. Eranskina: “Genero disforiaren ezaqutza eta egunerokotasuna” bilaketaren datu esanguratsuenak

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
Trip Database	(child)(gender dysphoria)(knowledge)	32*		0	1
		32* ²		5	
MEDES	(((("personas transgénero"[todos]) OR "niño"[todos]) AND "disforia de género"[todos]) AND "conocimiento"[todos])	0	B A R N E - I R I Z P I D E A K	9	5
	((("disforia de género"[todos]) AND "conocimiento"[todos])	0			
	((("personas transgenero"[todos]) AND "conocimiento"[todos])	0			
	((("disforia de género"[todos]) OR "personas transgénero"[todos])	10			
Cochrane plus	(personas transgénero) OR (niño) AND (disforia de género) AND (conocimiento)	0		1	0
	(disforia de género) AND (conocimiento)	3			
	(personas transgénero) AND (conocimiento)	0			
	(personas transgénero) AND (disforia de género)	5			
PubMed	(((transgender persons) OR child) AND gender dysphoria) AND knowledge	20		17	2
BVS	(tw:(personas transgénero)) OR (tw:(niño)) AND (tw:(disforia de género)) AND (tw:(conocimiento))	0		1	1
	(tw:(disforia de género)) AND (tw:(conocimiento))	1			
	(tw:(personas transgénero)) AND (tw:(conocimiento))	6			

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
Dialnet	(personas transgénero) OR (niño) AND (disforia de género) AND (conocimiento)	0	B A R N E - I R I Z P I D E A K		
	(disforia de género) AND (conocimiento)	5		4	0
	(personas transgénero) AND (conocimiento)	10		7	0
	(personas transgénero) OR (disforia de género)	76		50	4
Science direct	(personas transgénero) OR (niño) AND (disforia de género) AND (conocimiento)	23		23	3
Cuiden	(personas transgénero) OR (niño) AND (disforia de género) AND (conocimiento)	1		0	0
	(disforia de género) AND (conocimiento)	1		1	0
	(personas transgénero) OR (disforia de género)	3		2	0

* *Systematic reviews* irizpidea gehitu zaio.

*2 *Guideline* irizpidea gehitu zaio.

Iturria: Propioa.

8.4. Eranskina: "Ipuinen garrantzia osasun-heziketan" bilaketaren datu esanguratsuenak

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
Trip Database	(child)(health education)(stories)	2.030*	B A R N E	7	0
		2.030*2		26	0
	(child)(health systems)(bibliotherapy)	17		13	0
	(child)(health services)(bibliotherapy)	39		34	0
MEDES	((("niño"[todos]) AND "educación para la salud"[todos]) AND "cuentos"[todos])	0	-		
	((("niño"[todos]) AND "sistemas de salud"[todos]) AND "biblioterapia"[todos])	0			
	((("niño"[todos]) AND "servicios de salud"[todos]) AND "biblioterapia"[todos])	0			
	(("niño"[todos]) AND "biblioterapia"[todos])	0			
Cochrane plus	(niño) AND (educación para la salud) AND (cuentos)	1	I R I Z P I D E A K		0
	(niño) and (sistemas de salud) and (biblioterapia)	0			
	(niño) and (servicios de salud) and (biblioterapia)	0			
	(niño) AND (biblioterapia)	1		0	0
PubMed	((child) AND health education) AND stories	150		71	3
	((child) AND health systems) AND bibliotherapy	1		1	0
	((child) AND health services) AND bibliotherapy	32		11	1

DATU-BASEAK	HITZ GAKOAK	ARTIKULU KOPURUA		ARTIKULU KOPURUA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK	
BVS	(tw:(niño)) AND (tw:(educación para la salud)) AND (tw:(cuentos))	7	B A R N E - I R I Z P I D E A K	0	0	
	(tw:(niño)) AND (tw:(sistemas de salud)) AND (tw:(biblioterapia))	0				
	(tw:(niño)) AND (tw:(servicios de salud)) AND (tw:(biblioterapia))	8		0	0	
Dialnet	(niño) AND (educación para la salud) AND (cuentos)	96			70	0
	(niño) AND (sistemas de salud) AND (biblioterapia)	0				
	(niño) AND (servicios de salud) AND (biblioterapia)	0				
	(niño) AND (biblioterapia)	5		3	0	
Science direct	(niño) AND (educación para la salud) AND (cuentos)	58			33	1
	(niño) AND (sistemas de salud) AND (biblioterapia)	1			0	0
	(niño) AND (servicios de salud) AND (biblioterapia)	2			1	0
	(niño) AND (biblioterapia)	5			2	0
Cuiden	(niño) AND (educación para la salud) AND (cuentos)	1			0	0
	(niño) AND (sistemas de salud) AND (biblioterapia)	0				
	(niño) AND (servicios de salud) AND (biblioterapia)	0				
	(niño) AND (biblioterapia)	0				

* *Systematic reviews* irizpidea gehitu zaio.

*² *Guideline* irizpidea gehitu zaio.

Iturria: Propioa.

8.5. Eranskina: Datu-baseetan aurkitutako testuen izenburuak

DATU-BASEA	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
Trip Database	Practice parameter on gay, lesbian or bisexual sexual orientation, gender nonconformity, and gender discordance in children and adolescents.
MEDES	Satisfacción con la vida y bienestar psicológico en personas con Disforia de Género
	Reflexiones en torno al marco epistemológico de la disforia de género.
	Documento de posicionamiento: disforia de género en la infancia y la adolescencia. Grupo de Identidad y Diferenciación Sexual de la Sociedad Española de Endocrinología y Nutrición (GIDSEEN)
	La 7ª versión de los Estándares Asistenciales de la WPATH. Un enfoque diferente que supera el dimorfismo sexual y de género.
	Atención psicomédica a personas transexuales en España en la era de la despatologización de la transexualidad como trastorno mental. Una revisión global
Cochrane plus	Actualización: La atención de pacientes lesbianas, gays y bisexuales, y transgénero (segunda parte)
PubMed	Surviving a gender-variant childhood: the views of transgender adults on the needs of gender-variant children and their parents.
	Gender dysphoria in childhood
	Gender nonconforming and transgender children/youth: Family, community, and implications for practice.
	The Pediatrician's Role in Optimizing School Readiness.
	"Once Upon a Time": A Discussion of Children's Picture Books as a Narrative Educational Tool for Nursing Students
	Enhancing children's health through digital story.
	Children's books for use in bibliotherapy
BVS	Improving nursing care for lesbian, bisexual, and transgender women.
	Adding silver to the rainbow: the development of the nurses' health education about LGBT elders (HEALE) cultural competency curriculum.
Dialnet	Un lugar en el mundo condiciones de vida de personas transexuales y transgénero en la Ciudad de México
	Variables clínicas en el trastorno de identidad de género
	Transgenerismos, una aproximación de etnografía extrema entrevista a Norma Mejía
	Bestiario jurídico dispositivos de normalización ante la transexualidad

Science Direct	Abordaje psicológico de la transexualidad desde una unidad multidisciplinaria: la Unidad de Trastornos de Identidad de Género de Madrid
	Abordaje multidisciplinar de la transexualidad: desde atención primaria a la Unidad de Trastornos de Identidad de Género de Madrid (UTIG MADRID)
	Transexualidad y adolescencia
	El cuento como técnica de educación sanitaria en escolares

Iturria: Propioa.

8.6. Eranskina: Web-orrialdeetatik hartutako dokumentuak


WEB-ORRIALDEA	DOKUMENTUEN IZENBURUAK
Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saila	Materiales para los primeros días.
	Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida.
	El valor matemático de un cuento.
Berdindu erakundea	Actitudes ante la diversidad afectivo-sexual en las aulas.
Basta de <i>bullying</i>	Niños y niñas de Escuela Primaria. Información y actividades.
Eusko Jaurlaritzza	236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
Euskal Herriko Unibertsitateko Biblioteka	Manual de educación para la salud.
Ararteko	Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan: hausnartzeko eta parte hartzeko foroak Ararteko.
	Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.

Iturria: Propioa.

8.7. Eranskina: "Mikel-en istorioa"












BERAZ...

1. BA AL DAUDE ZAKILA DUTEN NESKAK?
ETA ALUA DUTEN MUTILAK?
2. ZER EGINGO DUGU ZAKILA DUEN GURE LAGUN
BATEK NESKA DELA ESATEN BADI GU?
3. ZEIN SENTIMENDU UKATZEN LAGUNDUKO
DIOGU?

Three blank white rectangular boxes are positioned to the right of the questions, intended for answers.



Iturria: Propioa.

8.8. Eranskina: Antzerkirako egoerak

1. EGOERA: JUNE-k 7 urte ditu, bere burua ez du neska bezala ikusten, mutil bezala baizik. Beraz, ezkutuan, JULEN izan nahi du eta egun batean amari kontatzea erabakitzen du. Zer gertatuko da?

PERTSONAIAK: Ama, Julen eta narratzailea.

2. EGOERA: MIKEL eskolara joan da, nazkatuta dago denek Mikel izenez deitzeaz, bera MAITE da. Maiteri ile luzea edukitzea gustatzen zaio, beraz, gaur, ile luzea duen peluka batekin joan da ikastolara. Zer erantzungo diote bere lagunek?

PERTSONAIAK: Maite, bi lagun eta narratzailea.

3. EGOERA: JARE-k beti jakin izan du mutila dela eta bere benetako izena JON dela, baina bere sekretua ez dio inori kontatu. Egund batean, bere lagun bati kontatzea erabakitzen duenean, lagunak barre egiten dio. Jon oso triste dago, bere lagunak barre egin diolako eta negarrez hasten da. Beste lagun batek Jon negarrez ikusten du eta lasaitzera joaten da. Zer gertatuko da?




PERTSONAIAK: Jon, barre egiten dion laguna, lagundu egiten dion laguna eta narratzailea.

4. EGOERA: ANDER-ek bere lagunei ANDREA zela bere benetako izena eta neska bat zela kontatu zien ikastolan. Klaseko ikaskide guztiek oso ongi onartu zuten Andrea, baina zaharragoa den haur bat Andreari irainak eta hitz zatarrak esaten hasi zaio egunero ikastolan. Zer egingo dute bere lagunek?

PERTSONAIAK: Andrea, Andrearen lagun bat, Andrea iraintzen duen haur zaharragoa eta narratzailea.

Iturria: Propioa.

8.9. Eranskina: Haurrentzako ebaluazio orria

			
Saioa/ak luze egin zaizu/zaizkizu?			
Jolasak gustatu zaizkizu?			
Zerbait berria ikasi duzu?			
Saioa/ak gustatu zaizu/zaizkizu?			

HOBEKUNTZAK:

Iturria: Propioa.

8.10. Eranskina: Hezitzaileentzako behaketa gidioa

Helburuak eta edukiak:

Prozesua:

- Jarduerak denboraz eta uste ziren era berean egin dira?
- Erabilitako teknikak egokiak izan dira kontzeptuak barneratzeko? Taldera egoki aplikatu dira? Ongi aurkeztu eta kudeatu dira?
- Komunikazio era, profesionalen azaltzeko modua eta hezitzaileen inguruko kudeaketari buruzko iruzkinak idatzi.
- Parte hartze kopurua adierazi:

Egitura:

- Tokia:
- Orduategia eta denbora:
- Erabilitako materialak:

Hobekuntzarako oharrak:

Iturria: Pérez MJ, Echauri M, Ancizu E, Chocarro J. Manual de educación para la salud. [Interneteko monografia]. Navarra: Instituto de Salud Pública del Gobierno de Navarra; 2006 [atzitze data: 2016/01/19]. Eskuragarri: <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/049B3858-F993-4B2F-9E33-2002E652EBA2/194026/MANUALdeeducacionparalasalud.pdf>

8.11. Eranskina: Gurasoentzako ebaluazio galdetegia

1. Ondorengo taulan X ikurraren bitartez zure gogobetetasun maila adierazi.

1= Oso eskasa/ 5=Oso ona

Iritzi orokorra	1	2	3	4	5
Landutako gaiak eta edukiak	1	2	3	4	5
Lan egiteko era edo modua	1	2	3	4	5
Saioa/ak haurren beharretara egokitua/ak dagoen/dauden ala ez	1	2	3	4	5
Egunerokotasunerako baliagarritasuna	1	2	3	4	5
Guraso bezala, saioan/etan zure inplikazio pertsonala	1	2	3	4	5
Asebetetze maila	1	2	3	4	5

2. Saioari/ei buruzko 3 aspektu positibo aipatu:

3. Saioari/ei buruzko 3 aspektu negatibo aipatu:

Iturria: Pérez MJ, Echauri M, Ancizu E, Chocarro J. Manual de educación para la salud. [Interneteko monografia]. Navarra: Instituto de Salud Pública del Gobierno de Navarra; 2006 [atzitze data: 2016/01/19]. Eskuragarri:

<https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/049B3858-F993-4B2F-9E33-2002E652EBA2/194026/MANUALdeeducacionparalasalud.pdf>